

# **OBRAK PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIA.**

## **I. KONTRATUAREN EDUKIA**

### **1. KONTRATUAREN HELBURUA**

Baldintza agiri honetan egin beharreko kontratuaren helburua izango da "SAN PEDRO AUZOAREN (10 zenbakitik 16-17 zenbakietara arte) BERRURBANIZAZIO PROIEKTUAN" aurreikusitako obrak egitea eta enplegua eta horren kalitatea sustatzea. Proiektua ERAIKI S.L. enpresak egin du 2013ko uztailean Eskoriatzako Udalak eskatuta, eta behin betiko onartu zen 2014ko maiatzaren 13ko 354 zenbakidun Alkate erabakiz. Hori guztiori espedienteko dokumentazio teknikoaren arabera, kontratu izaera izango duena.

### **2. OBRAK BURUTZEKO EPEA**

Kontratazio honen helburu diren obrak burutzeko epea BOST (5) hilabetekoa izango da zuinketa egiaztatzeko akta sinatzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Aipatutako epe hori igaroz gero, kontratistak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Udalak aurretik ez ohartarazi.

### **3. KONTRATUAREN AURREKONTUA**

Lehiaketarako oinarrizko aurrekontua 247.813,43 eurokoa gehi %21eko BEZaren 52.040,82 euro izango da, eta aurrekontu hori hobetu ahal izango dute lehiatzaileek.

Kontratuko prezioan alekako prezioen zerrenda agertu beharko da, behar bezala banakatua, eta horiek izango dira indarrean egongo direnak obrak irauten duten bitartean. Prezio horiek ez badira aurkezten, ulertu beharko da lehiatzaileak administrazioaren aurrekontukoak aurkezten dituela eta horiei ere portzentaje berean eragiten diela bere proposamen ekonomikoan egindako beherapenak.

#### **4. FINANTZIAZIOA**

Kontratuaren prezioa ordaintzeko ez dago finantzaziorik aurreikusita indarrean dagoen aurrekontuan, baina, aurrekontu arloko organo eskudunak, Alkateak, konpromisoa hartu du beharrezko kreditua kontsignatzeko, kontratua esleitu baino lehen, 2014ko aurrekontuko kitapenetik gelditutako diruzaintzako gerakinaren kargura.

#### **5. ORDAINTZEKO MODUA**

Burututako obraren ordainketa zuzendari fakultatiboak aldizka egindako egiaztagirien bidez egingo da.

#### **6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA**

Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea.

#### **7. BERMEAK**

Kontratuaren esleipendunak behin betiko bermea jarri beharko du hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko. Bermea esleipeneko zenbatekoaren % 5koa izango da, BEZ gabe.

Berme hori jartzeko epea 10 egun baliodunekoa izango da, 28. baldintzan aipatzen den errekerimendua jasotzen den biharamunetik kontatzen hasita, eta Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 96. artikuluan ezarritako edozein moduan jarri ahal izango da. Bermea jarri dela bide elektronikoz, informatikoz edo telematikoz egiaztatu ahal izango da. Lehiatzaileari egotzi dakizkion arrazoiengatik ez bada betetzen baldintza hori, Udalak ez dio esleipenik egingo.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 102. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik egingo da.

#### **8. KONTRATUA BURUTZEA**

Kontratu hau exekutzeko ingurumen edo gizarte izaerako ondorengo exekuzio baldintza bereziak eskatuko dira:

8.1.- Aplikagarria den lan hitzarmenean ezarritako lan baldintzak zorrotz aplikatuko direla bermatu beharko die enpresa esleipendunak kontratu honen exekuziora atxikitako langileei.

8.2.- Obra burutzeko atxiki beharreko baliabide pertsonalak eta materialak. Kontratistaren betebeharra izango da honako hau:

a) Obrari, gutxienez, honako hauek atxikitzea:

Topografo bat ekipo osoarekin zuinketa lanek dirauten bitartean eta beharrekoa denean.

Gutxienez unibertsitateko erdi mailako tituludun obra burua, 5 urteko esperientziarekin antzeko obretan.

8.3.- Ingurumenarekiko errespetua ziurtatzeko plana:

1. Egiten diren eraiaketek IHOBEn eraisketa selektiboak egiteko eskuliburuan ezarritako metodologia jarraitu beharko dute.
2. Obran antzemandako edozein hondakin (hondakintzat joko da hondakinei eta zoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean horrela definitutakoa) aipatutako legean eta eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatu beharko da.

8.4.- OBREN SEINALEZTAPENA: Kontratistaren betebeharra izango da honako hau:

Berak ordainduta jartzea obrara sartzeko beharrezko seinaleak, lan eremuko zirkulaziorakoak eta obren lanak direla-eta egon daitezkeen arrisku puntuak adieraztekoak, bai eremu horretan bai eremuaren muga eta inguruetan. Era berean, seinale osagarriak jartzeko edo jarritakoak aldatzeko Zuzendaritzatik idatziz jasotako aginduak bete beharko ditu. Kasu guztietan, obrak direla-eta jarritako seinaleak, errotuluak eta oharra euskaraz eta piktogramaz egon beharko dira. Piktogramarik ez dagoenean bakarrik erabiliko da testu elebiduna, baina, betiere, lehentasuna emanez euskarari.

Baldintza horiek funtsezko izaera dute kontratuaren betebeharrerarako, eta beraz, SPKLTBren 118.2 artikuluan ezarritakoaren babesean, baldintza horiek ez betetzea kontratua erabakitzeke arrazoia izan daiteke 223.f) artikuluan aipatutako ondorioerarako.

Obren kontratuaren exekuzioa zuinketa-akta izenpetzearekin batera hasiko da, eta akta izenpetzeko epea 10 egunekoa izango da kontratua sinatzen den egunetik kontatzen hasita.

Kontratua kontratistaren gain eta kontura burutuko da, eta kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango galera, matxura edo kalteak izaten baditu obretan, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 231. artikuluan adierazitako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Horiek gorabehera, obrak egiterakoan honako hauek bete beharko dira: a) agiri honetan ezarritako baldintzak; b) baldintza-agiriarekin batera dauden xehetasun teknikoak, c) Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina, eta d) urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartutako Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorrean ezarritakoak. Bereziki, kontratuko obrak Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrol pean burutuko dira, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Esleipendunari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz Administrazioak uste badu kolokan dagoela kontratua burutzeko obrek behar bezala aurrera egitea, kontratua behar bezala burutzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko agindu ahal izango du.

## **9.- HIZKUNTZ IRIZPIDEAK**

**9.1.-** Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeke azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeke prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan, eta 2011ko irailaren 21eko osoko Bilkuran onartutako "2011-2015 agintaldirako Eskoriatzako Udalaren Hizkuntza Politika" dokumentuan.

Baldintza plegu honetan ezartzen diren hizkuntza baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.

**9.2.-** Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.

Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.

Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin alde zuzenetik adostuta.

**9.3** Enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntz araudiaren arabera jokatu du, kontratuaren xede diren jardura guztietan; eta beraz, enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratuak, fakturak, txostenak, bilerak eta abar) administrazioaren lan hizkuntzaren arabera izango dira, hau da, euskaraz, eta horrela onartuz gero, hizkuntza bietan.

**9.4** Zerbitzuaren kontratazioa sustatu duen administrazio atalak berak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari. Ondoren, Euskara Zerbitzuak bere balorazioa egingo du oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz.

## **10.- KONTRATUAREN ARDURADUNA, OBRAREN ZUZENDARITZA ETA OBRAREN ORDEZKARIA.**

Kontratazio organoak pertsona bat izendatu ahal izango du kontratuaren ardura izateko.

Kontratazio Organoak izendatzen duen obra zuzendaria izango da kontrataturiko obra behar bezala egiteko zuzendaritza, ikuskaritza, egiaztatze eta zaintza lanak egingo dituenak. Obra zuzendariak Kontratazio Organoak izendatzen duen pertsonen laguntza jaso ahal izango du.

Kontratatzen duen obra ordezkaria teknikari tituluduna izango da, eta egiaztatutako esperientzia izango du kontratuaren gaia den obraren antzeko obratan.

## **11.- ZUINKETA EGIAZTATZEA ETA LAN PROGRAMA.**

Kontratua formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita, gehienez ere hamar egun naturaleko epean egin beharko da zuinketa eta horri buruzko akta.

Esleipendunak lan-programa bat aurkeztu beharko du kontratazio organoak onartu dezan. Programa kontratuaren formalizazioaren hurrengo hamar egun naturaletan aurkeztu beharko da eta proposamenarekin aurkeztutakoa garatuko du, baina ezingo du kontratuko baldintza bat bera ere aldatu. Programa ikusita, kontratazio organoak horren aplikazioari buruzko erabakia hartu eta kontratuari erantsiko zaio.

## **12.- LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA.**

Behin betiko esleipena jakinarazten denetik hamar egun naturaleko epean kontratistak laneko segurtasun eta osasun plana aurkeztuko dio kontratazio organoari. Bost egun naturaleko epean jakinaraziko zaio onartu den edo ez.

Edozein kasutan, laneko segurtasun eta osasun plana onartzeko gehienezko epea hilabetekoa izango da kontratua sinatzen denetik. Aurreko paragrafoan ezarritako epeak beteko ez balitu kontratistak, eta horregatik ezinezkoa balitz obrak hastea horretarako baimena ematerakoan, kontratistak ezingo du inolako luzapenik eskatu arrazoi horregatik.

## **13. EPEAK.**

Kontratua egikaritzeko finkaturiko epe osoa betetzera behartuta dago esleipenduna, baita, hala dagokionean, finkaturiko epe partzialak betetzera ere. Epe horiek zuinketa egiaztatzeak akta sinatu ondorengo egunean hasiko dira kontatzen esleipendunarentzat.

## **14. ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK**

Kontratu honen xede diren obretan kontratatutako langileei dagokienez, kontratistak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higiearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete beharko ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

## **15. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK**

Obrak burutzen diren bitartean, kontratistaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo obrak behar bezala ez antolatu, babestu edo seinaleztatzeagatik gertatzen badira.

Enpresa esleipendunak derrigorrezko aseguruak eta, hala eskatuz gero, ondorengoak izan beharko ditu:

**Obra hauetarako arrisku orotarako aseguruak:** Bai (kontratuaren prezioa, BEZ gabe).

**Erantzukizun zibileko aseguruak:** Bai (lehiaketako tipoa BEZarekin)

## **16. KONTRATUA ALDATZEA**

Herri onurako arrazoiak direla-eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du SPKLTBren 107. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatutakoan, betiere, horrekin ez badira aldatzen lehiaketaren eta esleipenaren oinarritzko baldintzak.

Aipatutako balizko aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.

Lege horretako 234.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratua aldatzerakoan obra-unitate berriak sartu behar badira kontratuan, unitate horien prezioak Administrazioak zehaztuko ditu. Kontratistak ez baditu prezio horiek onartzen, unitate berri horiek beste enpresa batekin prezio beretan kontratatzeko edo zuzenean burutzeko eskubidea dauka kontratazio-organoak.

## **17.- OBRAK HARTZEA ETA BERME EPEA**

Obrak amaitu eta gehienez ere hilabeteko epean, obrak hartzeko egintza formal eta positiboa egingo da eta egintza horren akta jaso.

Gainera, URTE BATEKO berme-epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

Nolanahi ere, kontratistak kontratua bete ez eta eraikuntzak ezkutuko akatsak izateagatik obra berme-epetik kanpo hondatzen bada, kontratistak kalte eta galerei aurre egiteko erantzukizuna izango du hamabost urtean, obraren harrera egunetik kontatzen hasita.

Transcurrido este plazo sin que se haya manifestado ningún daño o perjuicio, quedará totalmente extinguida la responsabilidad del contratista.

#### **18.- AZPIKONTRATAZIOA.**

Enpresak zein azpikontratarekin hitzartuko duen kontratuaren exekuzio partziala, zein kontratu zati azpikontratatu diren eta azpikontratisten esperientzia antzerako obretan jasotzen duen aitortpena aurkeztu beharko da.

#### **19.- ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK HONAKO HAUEK EZ BETETZEAGATIK**

##### **A. KONTRATUA EXEKUTATZEKO EPEAK EZ BETETZEAGATIK**

Kontratastak, bere erruagatik, kontratua exekutatzeke epe osoa edo epe partzialak igarotakoan exekutatu gabe baditu epe horietan egin beharreko lanak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo lanak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

Atzerapenagatik zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta exekuzioarekin aurrera egitea erabakitzeke.

##### **B. PRESTAZIOEN EXEKUZIO PARTZIALA EZ BETETZEA**

Kontratastak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen exekuzio partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

##### **C. EGOKI EZ BETETZEA**

Prestazioa behar bezala betetzen ez bada, kontratuaren aurrekontuaren 100eko 10eko zigorra jar dezake administrazioak.

##### **E. KAUDIMEN KONPROMISOAK EZ BETETZEA**

Kontratastak bere eskaintzan adierazitako baliabide material eta pertsonalak atxikitzeko betebeharra ez badu betetzen, Administrazioak, 20. baldintzan ezarritakoaren arabera, kontratuko aurrekontuaren % 10eko zigorra ezarri ahal izango dio.

## **20.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO BALDINTZA BEREZIAK EZ BETETZEA**

8. baldintzan ezarritako exekuzio baldintza sozialak edo ingurumenekoak betetzen ez badira, administrazioak kontratuaren aurrekontuaren 100eko 10eko zigorra jar dezake.

## **21.- KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEKO ARRAZOIAK**

Kontratua suntsitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 223. eta 237. artikuluetan ezarritakoak izango dira.

## **22.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK**

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz, Administrazioari honako hauek dagozkio: kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea.

## **II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA**

### **23.- ESLEIPENA EGITEKO PROZEDURA**

Kontratu honen esleipena prozedura ireki bidez egingo da.

Kontratua esleitzeko oinarri izango diren eskaintzen balorazio irizpideak eta horiek emandako haztapena honako hauek izango dira:

**PREZIOA:** (C gutun-azalean sartu beharrekoa). 45 puntu gehienez. Prezio txikieneko eskaintzari 45 puntu emango zaizkio.

Lehiaketa oinarriko eta eskaintza merkeenaren arteko gainerako eskaintzetarako ondorengo formula erabiliko da:

$$Lp= 45 - \%ko\ gehikuntza.$$

Honako hauek izanik:

Lp: Lehiatzailearen puntuazioa

%ko gehikuntza: eskaintza merkeenaren gaineko ehuneko hainbesteko portzentajeko gehikuntza, lehenengo dezimalera biribildua.

(Aztertutako eskaintza – eskaintza merkeena) / eskaintza merkeena.

Kontratazio Mahaiak neurrigabekotzat joko ditu lizitazio prezioa baino % 30 merkeagoak edo hortik beherako eskaintzak.

TXOSTEN TEKNIKOA: (B gutun-azalean sartu beharrekoa). Gehienez ere 35 punturekin baloratuko da.

Lehiatzaileak Txosten Tekniko labur bat aurkeztu behar du, orrialdeak behar bezala zenbakituta, eta aurkibidea ere bai, eta hor jasoko dira baloratu behar diren alderdi guztiak; horien edukia nahikoa izango da egin beharreko obren garrantzia eta edukia neurtzeko eta ez da izango 10 orri baino luzeagoa, din A4 formatuan (alde bietatik). Ondorio horietarako din A3 formatuan alde batetik erabilitako orria, bi aldetatik din A4 formatuko orri baten baliokidetzat hartuko da.

Aurkeztutako Txostenak gaintitzen badu esandako orri kopurua, Txosten Teknikoari dagokion balorazio irizpidea 0 punturekin baloratuko da.

Honako alderdi hauek baloratuko dira:

1) Proiektua egiaztatzeko azterketa: 9 puntu

Proiektuaren agiriak egiaztatzeko azterketa bat, bereziki neurketak eta dimentsionamenduak, eta izan litezkeen indefinizioei eta haien ondorioei (teknikoak eta ekonomikoak) buruzko dokumentazioa egiaztatzeko ere bai. Proposamen zehatz bat aurkeztu beharko da, izan litezkeen zailtasunak eta horiek konpontzeko proposamena eginez, batez ere obraren beraren ikuspegitik eta alboko auzotarrengan izan lezakeen eraginarenetik.

2) Obraren antolaketa plana: 9 puntu

Obraren antolaketaren deskribapena, kontuan izanik non dagoen, eta hauekin osaturik: sarbide planoak, obra itxiturak, pilaketa eremuak, obraren behin-behineko tailerrak..., eta koherentea izango dena Oinarrizko Segurtasun eta Osasun Azterketan eta aurkeztu behar den Segurtasun eta Osasun Planean agertzen denarekin.

3) Lan programa: 8 puntu

Lan programa bat, kontratuaren xede diren obrak aztertuko dituen, bat etorri proposatutako epeekin, agiri honetako dagokion klausulan jasotzen denaren arabera.

4) Obrarako izendatutako teknikariak: 3 puntu

Obrarako izendatutako teknikariak, haien curriculumarekin (titulazioa eta esperientzia), bai eta haien benetako parte hartzea eta dedikazioa zehaztea eta konpromisoa zenbaterainokoa den adieraztea, agiri honetako dagokion klausulan jasotzen denaren arabera.

5) Izan litezkeen azpikontratista eta hornitzaileen zerrenda: 2,5 puntu

Obraren alderdi espezifikotarako izan litezkeen azpikontratisten eta hornitzaileen zerrenda, obran nola parte hartuko luketen zehaztuta, agiri honetako dagokion klausulan jasotzen denaren arabera.

6) Kosturik gabeko beste abantaila batzuk : 3,5 puntu

Beste abantaila tekniko batzuk ere adierazi daitezke, agirian eskatutakoari erantsita, kontratatu beharreko obraren exekuzioa hobetzeko interesgarritzat jotzen direnak. Obra ondo bukatzeko diren hobekuntzak (obra unitateetan hobekuntzak), erabiltzaileei kalteak (etxeetarako babesak), zaratek sortutako eragozpenak edo beste mota batekoak, eta baita, Udalarik kosturik sortu barik, lehiatzaileak proposatzen dituen beste aspektu batzuk ere.

Eskaintzak neurritz gaineoak edo anormalak direla eta proposamenak ezin litezkeela bete uste izateko kontuan hartuko diren mugak Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 85. artikuluan eta ondorengoetan xedatutako parametro objektiboek zehaztuko dizkigute, aurkeztutako eskaintza baliagarri guztiak erreferentetzat izanda.

**LANA SUSTATZEA:** (C gutun-azalean sartu beharrekoa). Gehienez ere 6 puntu lortu ahal izango dira atal honetan.

Hiru puntu emango zaizkio kontratuaren iraunaldirako langabetu bat lanaldi osorako kontratatzen duenari.

Beste kasuetarako proportzionaltasuna aplikatuko da kontratu denboraren eta lanaldi motaren arabera. Honela:

$$L_p = 0,6 \times K_D \times L_M$$

Honako hauek izanik:

L<sub>p</sub>: Lehiatzailearen puntuazioa

KD: lehiatzaileak proposatutako kontratu denbora (hilabetetan).

LM: lehiatzaileak proposatutako lanaldi mota (1 lanaldi osoak, 0,5 lanaldi erdiak, eta gainerako proposamenentzat proportzionaltasuna aplikatuko da).

Formula hori kontratatuko langabetu bakoitzari aplikatuko zaio. Puntuazio osoa pertsona bakoitzeko lortutako puntuazio partzialen batuketa izango da, gehienezko puntuaziora iritsi arte.

**BERME EPEA LUZATZEA:** (C gutun-azalean sartu beharrekoa). Gehienez ere 2 punturekin baloratuko dira.

Obren berme epea aurreikusitako 12 hilabeteetatik gora handitzea baloratuko da.

- 2 puntu emango zaizkio hilabete kopuruan berme epe handiena eskaintzen duen eskaintzari.

- 12 hilabeteko berme epea eskaintzen duten eskaintzak 0 punturekin baloratuko dira.

- Gainerako eskaintzek aurreko bi puntuekiko balio proportzionala jasoko dute eskaintako berme epearen arabera. Honela:

$$Lp = \frac{Lb}{Bo} \times 2$$

Honako hauek izanik:

Lp: lehiatzailearen puntuazioa.

Lb: lehiatzailearen berme epea.

Bo: eskaintza onenaren berme epea.

## **24.- KONTRATAZIO MAHAIA**

Kontratazio mahaia kide hauek osatuko dute:

- Epaimahaiburua: Hirigintza batzordeko burua.
- Mahaikideak: Hirigintza batzordeko 3 zinegotzi, Idazkari-kontuhartzailea, Obrak eta Zerbitzuak arloko teknikaria eta Hirigintza arloko teknikaria.
- Idazkaria: idazkari-kontuhartzailea.
- Ordezkoak:
  - Mahaiburuarena: Eskuordetutako zinegotzia.
  - Mahaikideenak: Eskuordetutako zinegotziak eta eskuordetutako funtzionarioak.

- Idazkariarena: eskuordetutako funtzionarioa.

## **25.- KONTRATATZEKO GAITASUNA**

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoen parte hartu ahal izango dute kontratazio prozedura honetan, baldin eta beren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak 27.e) baldintzan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoen beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari bertako kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateke ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkie.

Enpresariak, gainera, kontratu honen gaia den prestazioa edo jarduera burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

## **26.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA**

Kontratazioari buruzko espedientea eta horri loturiko dokumentazio teknikoa Udaletxeke Hirigintza arloko bulegoan izango da aztergai, goizeko 09:00etatik 14:30era, lizitazio honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera egun baliodun guztietan eta proposamenak aurkezteke epea bukatu bitartean.

Proposamenak, aurretik adierazitako leku eta ordutegian aurkeztuko dira 26 egun naturaleke epean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Gainera, eskaintza hau kontratazio organoko kontratatzailearen eskakizunetan argitaratuko da webgune honetan:

[www.eskoriaatza.net](http://www.eskoriaatza.net)

Kontratugilearen eskakizunetan baldintza agiriak eta dokumentazio osagarria ere eskuratu ahal izango dira.

Baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruz eskaintzaileek eskatutako informazio gehigarria proposamenak hartzeko data iraungi aurreko sei egun baino lehenago emango zaie, beti ere, eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez zortzi egun lehenago egindako eskariak badira.

SPKLaren 158.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeen barruan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko aldez aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo baldintza-agiriari erantsitako dokumentazioa "in situ" kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, hautagai guztiek eskaintzak egiteko beharrezkoa duten informazio guztia jaso dezaten ahalbidetzeko adina.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkezten diren proposamenak, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen bidali. Dena dela, proposamena onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali zela egiaztatzen bada. Horretarako, lehiatzaileak, proposamena bidaltzen duen egunean bertan, posta-egiaztagiria bidali beharko dio kontratazio-organoari telekopiaz, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz. Posta elektronikoz bidaltzen badu, baliozkoa izan dadin, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorraren 80.4 artikuluan ezarritakoa bete beharko du.

## **27.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO ERA**

Proposamenak euskaraz aurkeztu beharko dira edo, bestela, euskaraz eta erdaraz.

Lehiatzaileek hiru gutun-azal (A, B eta C) aurkeztu beharko dituzte itxita. Gutun-azal bakoitzaren barruan honako hau idatziko da: "SAN PEDRO AUZOAREN (10 zenbakitik 16-17 zenbakietara arte) BERRURBANIZAZIO PROIEKTUAN aurreikusitako obrak egiteko PROZEDURA IREKI BIDEZKO KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA".

Gutun-azal bakoitzean enpresaren izena eta proposamen-izenpetzailearen izen-abizenak adieraziko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz. Gutun-azalak izenpetuta egongo dira.

**"A" gutun-azalaren azpititulua hauxe izango da: "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA". Hona hemen "A" gutun-azalean aurkeztu beharreko agiriak:**

a) Parte-hartzailearen edo bere ordezkariaren nortasun agiri nazionalaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten izenean arituz gero, notario-ahalordea. Notarioaren-ahalordea Udalak askietsiko du gutun-azal honetako dokumentazioa kalifikatzerakoan.

b) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskitura, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan -inskripzio hori derrigorrezkoa balitz aplikatu beharreko merkataritzako legeriaren arabera-, eta identifikazio fiskaleko zenbakia aurkeztuko ditu Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskitura edo agiria aurkeztu beharko da jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak.

Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, dagokion erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie edo zinpeko aitortza edo ziurtagiria aurkeztu ezar daitezkeen Europako Erkidegoko xedapenen arabera.

Atzerriko gainontzeko enpresariak jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute, delako estatu horretan Espainiak daukan ordezkari diplomatiko iraunkorrak edo enpresak helbidea duen kontsuletzeko bulegoak egindako txostenaren bidez.

c) Lehiatzaileak erantzukizunpeko berariazko aitortpena aurkeztu behar du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 60. artikuluan kontratatzeke ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitorpen horretan berariaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; edo, hala egiten ez badu, egiaztagiriak aurkeztuko ditu, betebeharroriek baterik dituela frogatzeko.

d) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, kontratuaren helburuari dagokion epigrafean alta emanda dagoela egiaztatzen duen egiaztagiria. Egiaztagiria aurtengo ekitaldikoa bada, alta aurkeztu beharko da; eta gainontzeko kasuetan, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren azken ordainagiria. Bi kasuetan zerga horri dagokion matrikulan baja eman ez duela egiaztatzen duen aitortpena aurkeztu beharko da.

e) Finantza eta ekonomia kaudimena kreditatzen du(t)en dokumentua edo dokumentuak.  
Ondorengo eran edo eratan egiaztatu beharko da:

Urteko negozio-bolumena edo kontratu honen arloko urteko negozio-bolumena.

Arrisku profesionalen kalte-ordainen aseguru dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria. Aseguru hori baldintza agiri honetan eskatutako kopuruarengatik edo handiagoagatik izan beharko da.

f) Kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzea. Agiri hauek aurkeztuz egiaztatu beharko da:

- Azken hamar urteetan egindako antzerako obren zerrenda, obra garrantzitsuenaren exekuzio oneko ziurtagiriarekin batera.
- Ez da onartuko aldi horretan antzerako ezaugarriekin gutxienez hiru urbanizazio obra egin izana, 230.000 €-tik gorakoak, egiaztatzen ez duten enpresa lehiatzaileen proposamenik.

Kaudimena frogatzeko, gainera, lehiatzaileek beraien eskaintzetan zehaztutako baliabide materialekin eta giza baliabideekin osatuko da. Hori kontratuari atxikiko zaio derrigorrezko izaeraz eta, beraz, SPKLTBaren 64.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hori betetzen ez bada kontratua bertan behera uzteko arrazoi izango da, 223.f) artikuluan adierazi bezala.

Proposamenetan, gainera, kontratua exekutatze arduradunen izen abizenak eta prestakuntza profesionala zehaztu beharko dira.

g) Kontratuaren gauzatze partziala zein azpikontratarekin hitzartuko duen, zein kontratu-zati azpikontratatu diren, dituzten baliabide pertsonalak eta materialak eta azpikontratisten esperientzia antzeko obretan jasotzen duen aitortpena.

h) Hainbat enpresarik aldi baterako enpresa-batasuna eratuz jotzen badute lehiaketara, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Era berean, esleipena lortuz gero AEB formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek. Bestalde, aldi baterako enpresa batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko du proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

i) Kontratuaren ondorioz sor litezkeen arazo zuzenak edo zeharkakoak konpondu ahal izateko atzerritar enpresek Espainiako epaitegi eta auzitegien menpekotasuna onartuko duten aitorpena aurkeztu beharko dute, beraien nazioko epaitegiei uko egiten dietela garbi adieraziz.

j) Prozedura honetako jakinarazpenak egiteko helbide elektroniko bat, SPKLTBren 151.4 artikuluan jasotakoaren eta ondorioen arabera.

Aurreko a), b) eta e) letretan adierazitako baldintzak Euskal Autonomia Erkidegoko Eskaintzaileen eta Saillkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiria, Estatuko Eskaintzaileen eta Saillkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiria, edo Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiri bat aurkeztuta ziurtatu ahal izango dira, SPKLTBren 84. artikulua xedatutakoaren arabera. Kasu horretan, ziurtapenarekin batera, adierazitako egoerak aldatu ez direla ziurtatzeko eskaintzaileak egindako erantzukizuneko aitorpena ere gehitu beharko da.

Aurreko paragrafoan aipatutako ziurtagiria elektronikoki ere egin ahal izango da.

**“B” gutun-azalak “BALIO-JUDIZIOAREN MENPEKO BALORAZIO IRIZPIDEAK” azpiztitulua izango du**, eta balio-judizioaren menpeko balorazio irizpideei buruz baldintza-agiri honetako 23. baldintzan aipatutako dokumentuak jasoko ditu.

**“C” gutun-azalak “PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA BALORAZIO AUTOMATIKORAKO IRIZPIDEAK” azpiztitulua izango du**, eta ondorengo dokumentu hauek izan beharko ditu:

a) I eranskinaren arabera egindako proposamen ekonomikoa.

b) Baldintza agiri honetako 23. baldintzan aipatutako balorazio automatikorako irizpideei buruzko dokumentuak.

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, aurretik Administrazioak edo notarioak behar bezala konpultsatu edo egiaztatu behar ditu. Dokumentazio hori fotokopietan ere aurkeztu ahal izango da, baina, kasu horretan, sailkapenean lehenengo gelditzen denak originalak aurkeztu beharko ditu fotokopia horiek benetakoak direla frogatzeko.

## **28.- AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA IREKITZEA, TRATATZEA ETA ENPRESAK AUKERATZEA.**

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, ondorengo jarduerak egingo dira:

### 1. "A" GUTUN-AZALA IREKITZEA ETA BERTAKO DOKUMENTUAK TRATATZEA.

Mahaiak "A" gutun-azaleko dokumentazioa kalifikatuko du. Horretarako, lehiatzaileei beren gaitasun eta kaudimenari buruzko argibide eta agiri gehiago eskatu ahal izango dizkie, eta lehiatzaileek bost egun naturaleko epean eman beharko dizkiote, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorraren 22. artikuluan xedatuta dagoenez. Mahaiak interesdunei ahoz eskatu behar dizkie argibide eta agiri osagarri horiek, eta gainera eskaera idatzia jarri behar du kontratazio organoaren iragarki oholean eta kontratatzailearen profilean. Era berean, lehiatzaileek aurkeztutako agirietan zuzentzeko moduko akatsak agertzen badira, Mahaiak ahoz eta iragarki bidez emango die horren berri lehiatzaileei; eta kasu honetan, eta aipatutako Erregelamenduaren 81. artikuluan ezarritakoaren arabera, hiru egun balioduneko epea izango dute akatsak zuzentzeko.

### 2. ENPRESAK AUKERATZEA

Mahaiak, behin aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu, eta hala badagokio, ikusitako akatsak edo ez-egiteak konpondu ondoren, baldintza agiri honen 20. baldintzako e) letran zehaztutako hautapen-irizpideekin bat egiten duten enpresak zeintzuk diren erabakiko du, eta berariaz adieraziko du zeintzuk diren lehiaketarako onartu diren enpresak, zeintzuk baztertutakoak eta bazterketaren arrazoiak.

### 3. "B" GUTUN-AZALA JENDAURREAN IREKITZEA

"B" gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa, balio-judizioaren menpeko irizpideak dituena, jendaurrean irekitzeko ekitaldia kontratugilearen eskakizunetan ezarritako egun eta orduan egingo da. Eguna eta ordua ekitaldia baino gutxienez 3 egun baliodun lehenago jarri beharko dira kontratugilearen eskakizunetan. Dokumentazio horretan egon daitezkeen akatsak edo hutsak zuzentzea beharrezko balitz, Mahaiak gehienez ere sei egun balioduneko epea emango du horiek zuzentzeko, SPKLa zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuko 27. artikuluan ezarritakoaren arabera.

#### 4. "C" GUTUN-AZALA JENDAURREAN IREKITZEA

"B" gutun-azaletako dokumentazioa ireki eta baloratu ondoren, "C" gutun-azalak jendaurrean irekitzeko ekitaldia egingo da kontratatzailearen profilean ezarritako egunean eta orduan. Dokumentazio horretan egon daitezkeen akatsak edo hutsak zuzentzea beharrezkoa balitz, Mahaiak gehienez ere sei laneguneko epea emango du horiek zuzentzeko.

Ekitaldi horretan jakinaraziko da eskaintza bakoitzean balio-judizioaren menpeko irizpideei emandako balorazioa.

#### 5. ESKAINTZAK SAILKATZEA

Irizpide guztiak baloratu ondoren, aurkeztutako proposizioak onenetik txarrenera sailkatuko ditu Mahaiak eta kontratua esleitzeko proposamena egingo dio esleipena egin behar duen kontratazio organoari.

SPKLTBren 152. artikuluan aurreikusten denez, balio anormal edo neurritz gainerakoren bat edo gehiago antzemandakoan, eskaintza anormaltzat edo neurritz gainekotzat jo aurretik eskaintzaileari (edo eskaintzaileei, hala dagokienean) entzungo zaio, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa jasoko da.

Kasu horretan, lehiatzaileak emandako arrazoiak eta eskatutako txostenak aintzat hartuta, Kontratazio Organoak proposamenik onuragarriena egiten duen eskaintzaileari egingo dio esleipena, betiere, Administrazioaren lanak egiteko gaitasuna duela jotzen bada.

Aitzitik, kontratazio organoak uste badu eskaintza ezingo dela burutu balore anormalak edo neurritz gainezkoak sartu direlako, sailkapenetik baztertuko du eta sailkapen hurrenkeraren arabera proposamen ekonomiko onenaren aldeko esleipena erabakiko du.

Egindako guztia espedientean jasoko da, derrigorrez egin beharreko dagozkion aktetan.

#### 6.- LEHENENGO SAILKATUARI ERREKERIMENDUA

Aurrez adierazitako prozedura egin ondoren, sailkapenean lehenengo gelditu denari errekerimendua egingo zaio, errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita hamar laneguneko epean honako hauek egin ditzan:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeko agiriak aurkeztea edo kontratazio organoari baimena ematea berak zuzenean lortzeko egiaztapen horiek. Ez da beharrezkoa izango dokumentazio hori aurkeztea ziurtagiri horiek proposamenarekin batera aurkeztu baldin badira.

b) Baldintza agiriko 27.b) baldintzan aurreikusitakoaren arabera, eta hala balitz, kontratua gauzatzeko atxikitzen konprometitutako baliabideak benetan dituzula justifikatzeko dokumentazioa aurkeztea.

c) Behin betiko bermea jarri izana egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztea.

d) Parte hartzeko eskaerako gutun-azalean fotokopia soilak aurkeztu badira, dokumentu horien jatorrizkoak aurkeztea.

Jarritako epean ez badu zuzen betetzen errekerimendua, lehiatzaileak bere eskaintza bertan behera utzi duela ulertuko da, eta kasu horretan, eskaintzen sailkapena kontuan izanik, hurrengo lehiatzaileari eskatuko zaio dokumentazio hori aurkezteko.

## **29.- ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK**

Kontratazio organoak kontratua proposamen onena egiten duen lehiatzaileari esleitzea erabakiko du.

Esleipena lehen aipatutako hamar eguneko epea amaitu ondorengo 5 egun baliodunetan egingo da, betiere, lehiatzaileak lehen aipatutako dokumentazioa aurkeztu badu eta behin betiko bermea jarri.

Kontratuak administrazio-agiri gisa formalizatuz hartuko du indar juridikoa. Agiri hori zehaztasunez egokituko da lehiaketako baldintzei eta nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikora jo ahal izateko. Hala ere, kontratistak kontratua eskritura publiko bihurtzea eskatu ahal izango du, eta kasu horretan berak ordaindu beharko ditu gastuak.

Esleipenaren jakinarazpenean adierazitako epean, ezingo dena izan 15 egun baliodun baino handiagoa, esleipendunak honako jarduera hau egin beharko du:

a) Administrazio honetako bulegoetara etorri kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.

b) Aldizkari ofizialetan jarri beharreko iragarki ofizialen gastuak ordaintzea.

Azkenik, formalizatutako dokumentuan jarritako epe barruan, ezingo dena izan hilabete bat baino handiagoa sinatzen den egunetik kontaktzen hasita, esleipenduna administrazio honetan agertu beharko da proiektuaren zuinketa egiaztatzeko eta dagokion akta sinatzeko. Kontratuaren exekuzio epea momentu horretatik hasiko da kontaktzen.

### **III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

#### **30.- KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA**

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuak izaera administratiboa izango du eta agiri honek eta honekin batera doan gainerako dokumentazio teknikoak arautuko dute kontratua.

Bertan zehazten ez den guztirako honako hauek arautuko dute kontratua:

- Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua.
- Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartutako Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuari aurka egiten ez dion guztian.
- Eta, hala beharko balitz, administrazio publikoetako kontratazioari aplikagarri zaizkion gainerako arauak.

Administrazio baldintza partikularren agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

#### **31.- DATU PERTSONALEN BABESA**

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratistak SPKLTBren Hogeita Seigarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

#### **32.- JURISDIKZIO ESKUDUNA.**

Kontratua betetzerakoan sor daitezkeen arazoak kontratazio organoak erabakiko ditu. Arazoak konpontzeko hartutako erabakiek administrazio bidea agortuko dute eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratu ahal izango dira zuzenean, kasuan kasu, SPKLTBren 40tik 49 arteko artikuluetan edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean araututako kontratazio-alorreko errekurtsu berezia bidezkoa izatearen kaltetan gabe.

Eskoriatzan,

## **I ERANSKINA. LEHIATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO PROPOSAMEN EKONOMIKOA EGITEKO EREDUA**

### **Lehiatzailearen datuak** (gaitasun juridikoarekin eta jardutekoarekin):

Izen-abizenak: .....  
Helbidea: .....  
Posta kodea : ....., NAN: ....., Telefonoa: ....., posta-  
elektronikoa: .....

### **Ordezkararen datuak** (ordezkaririk egonez gero):

Izen-abizenak: .....  
Helbidea: .....  
Posta kodea: ....., NAN edo IFK: ....., Telefonoa: .....; posta-  
elektronikoa: .....

..... prozedura ireki bidez kontratatzeko asmoz Eskoriatzako Udalak  
dei tutako lehiaketaren berri izan dut, eta hona hemen nire

### **ADIERAZPENA**

- 1) Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudala: ..... €, gehi  
% .....ko BEZari dagozkion ..... €. Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira:  
zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta esleipendunaren industri  
onura ere. Prezio hori honela banakatzen da:  
- Zolatze lanak: ..... euro, gehi BEZaren % 21ari dagozkion..... euro.  
- Estolderia: ..... euro, gehi BEZaren % 21ari dagozkion..... euro.  
-Ura: ..... euro, gehi BEZaren % 21ari dagozkion..... euro.  
- Argiteria: ..... euro, gehi BEZaren % 2ari dagozkion..... euro.

2) Proiektua eta bere edukia ezagutzen ditudala, eta baita administrazio baldintza  
partikularren agiria eta kontratu hau arautu behar duten gainontzeko agiriak ere. Horiek  
horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditudala oso-osorik.

3) Ordezkatzen dudan enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen  
araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen dituela.

....., 20....(e)ko .....aren ....(a)

Izenpea

# **PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN DE OBRAS POR PROCEDIMIENTO ABIERTO**

## **I. CONTENIDO DEL CONTRATO**

### **1. OBJETO DEL CONTRATO**

El contrato que en base al presente pliego se realice tendrá por objeto la ejecución de las obras contempladas en el proyecto denominado "SAN PEDRO AUZOAREN BERRURBANIZAZIO PROIEKTUA (10 zenbakitik 16 – 17 zenbakira arte" y el Fomento y Calidad en el Empleo, redactado a iniciativa del Ayuntamiento de Eskoriatza por la empresa ERAIKI, S.L. con fecha julio 2013 y aprobado definitivamente por Resolución de la Alcaldía Nº 354, de fecha 13 demayo de 2014. Todo ello de conformidad con la documentación técnica que obra en el expediente y que tendrá carácter contractual.

### **2. PLAZO DE EJECUCION**

El plazo total de ejecución de las obras objeto de la presente contratación será de CINCO (5) meses, contado a partir del día siguiente al de la firma del acta de comprobación del replanteo.

El contratista se entenderá incurso en mora por el transcurso del plazo citado, no siendo necesaria intimación previa por parte de la Administración.

### **3. PRESUPUESTO DEL CONTRATO**

El presupuesto base de licitación será de 247.813,43 € más 52.040,82 €, correspondientes al 21% de IVA, presupuesto que podrá ser mejorado por los licitadores.

El precio del contrato incluirá una relación de precios unitarios, debidamente desglosados, que son los que regirán durante la ejecución del mismo. Si tales precios no son presentados se entenderá que el licitador aporta los mismos del presupuesto de la Administración, afectados en igual porcentaje de baja que el contenido en su proposición económica.

#### **4. FINANCIACION**

Para sufragar el precio del contrato no hay prevista financiación con cargo al Presupuesto vigente , si bien el órgano competente en materia presupuestaria, el Alcalde, se compromete a consignar, antes del acuerdo de adjudicación del contrato, el crédito a necesario con cargo al remanente de tesorería resultante de la liquidación del Presupuesto 2014.

#### **5. FORMA DE PAGO**

El pago de las obras ejecutadas se realizará mediante certificaciones periódicas expedidas por el director facultativo de las mismas.

#### **6. REVISION DE PRECIOS**

En el presente contrato no procederá la revisión de precios .

#### **7. GARANTIAS**

El adjudicatario del contrato, a fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones contraídas, está obligado a constituir una garantía definitiva por la cuantía, equivalente al 5% del importe de adjudicación, excluido el IVA.

El plazo para la constitución de la citada garantía será de 10 días hábiles, contados desde el día siguiente al de la recepción del requerimiento a que se refiere la cláusula 28, y podrá constituirse en cualquiera de los medios establecidos en el artículo 96 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público. La acreditación de su constitución podrá realizarse por medios electrónicos, informáticos o telemáticos. De no cumplirse este requisito por causas imputables al licitador, el Ayuntamiento no efectuará la adjudicación a su favor.

La devolución de la garantía, tanto total como parcial en su caso, se realizará de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 102 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, una vez vencido el plazo de garantía y cumplidas por el adjudicatario todas sus obligaciones contractuales.

#### **8. EJECUCION DEL CONTRATO**

Para la ejecución de este contrato se exigirán las siguientes condiciones especiales de ejecución de carácter social o medioambiental:

